


Manuel Lekuona: In memoriam

Manuel Lekuona Oiartzunen jaio zen 1894ko otsailaren 9an, eta heriotza Donostian iritsi zitzaion 1987ko uztailak 30ean.

Manuel Lekuonaren eta Eusko Ikaskuntzaren arteko harremanak luzeak eta emankorrak izan dira oso. Biziarteko kide izan genuen Eusko Ikaskuntzan, Hizkuntza eta Literatura Saileko Buru argi eta kementsu izan zelarik. Batzorde Nagusiak, hain zuzen ere, besteak beste horregatik sortu zuen 1982an bere izena daraman saria, Manuel Lekuona Saria, hain zuzen.

Saiakera artikulu asko eta asko landu zituen *R.I.E.V.-Eusko Ikaskuntzaren Nazioarteko Aldizkarian*, eta Lantaldeko Kuadernoetan batipat Ahozko Literatura, Arte, Historia, eta Etnografia alorretan, aldizkariari ospe berezia eman diotenen artekoak denak.

Bizkaiko Forua, Pedro Puxanaren itzulpena, izenburua daraman lana gure Aldizkariaren ale hau aberastera datorkigu. Bihotzez gure agurrik beroena, beraz, zientzilari sakon eta jakintzarik haundieneko lankide ahaztuezina dugunari.



Manuel Lekuona : [In memoriam] / [Juan Garmendia Larrañaga]. - En: *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. - Donostia : Eusko Ikaskuntza. - T. XXXII, 2 (1987), p. 280-281